



Ondoan zeukan emakume batek 5 urteko alaba eraman zuen manifestaziora. «Gutaz nola abusatzen duten ikustez nazka-nazka eginda gaude», esan zien beste manifestariei, gazteak gehienak, bera bezalaxe. Halako batean alabak hartu zuen mikrofona; «ezin dugu gehiago», oihukatu zuen, bertan zeuden guztien irribarra eraginez.

Seattle hiriko herritarren %60k bat egiten dute gutxieneko soldata igotzearekin, baina proportzioa aldatu egiten da beste lekuetan. Horrek eta politikari profesionalen mugimenduek esplikatzeko dituzte Obama presidenteari bere proposamena aurrera ateratzeko izan dituen arazoak. Alderdi Demokratako parlamentariak Senatuan zein Ordezkariek Ganbaran aurkeztu dute 7,25 dolarreko gutxieneko soldata 10,10 dolarreko igotzeko proposamena. Soldata hori bi urterako izango litzateke eta hortik aurrera inflazioaren arabera igoko lukete.

1968ko ALDAKETA

Inkestek diote AEBetako herritar kontserbadore askok ere gaur egun bat egiten dutela igotzearekin, baina Alderdi Errepublikanoko senatariek behartu zuten lege proposamena estatuetara eta udaletara bidaltzea. AEBetan 1938an gutxieneko sol-

Ed Murray Seattle hiriko alkatea, gutxieneko soldata igotzearen aldeko mugimenduko kide bati bostekoa ematen. Ekainaren 3an onartu bezala, bertako gutxieneko soldata orduko 15 dolarreko da uneotan.

David RYDER | AFP

data ezarri zenetik, urtero inflazioaren eta produktibitatearen arabera igotzen zuten. Beraz, salneurrien igoerari aurre egiteko moduan izaten ziren langileak. Baina, 1968az geroztik, egoera aldatu egin zen eta orain langileen erosteko ahalmena 1960ko hamarkadako baino txikiagoa da. 1968 arteko bilakerari eutsi balitzaio, gaur egun gutxieneko soldata ia 22 dolarreko izango litzateke, egungoa (federala) hirukoiztuz.

Alderaketa beste herrialdeekin eginez gero, AEBak oso posizio txarrean geratzen dira. Gutxieneko soldata federala (7,25 dolarreko, oraingoan) AEBetako batez besteko soldaten %38,3koa baino ez da gaur egun. Japoniakoa bera (%38,4) estatubatuarrena baino hobea da. Britainia Handian, berriz, %46,7koa da, eta, Estatu frantsesean, %60koa.

Seattlen daude Microsoft, Boeing eta Amazon konpainia handien egoitzak. AEBetako leku gehienek baino langabezia tasa txikiagoa du, eta, teknologiaren sektorean, soldata onak

Tom Douglas ostalariak esan du hiriak azken urteotan izan duen hazkundeak eragin duela herritar askok ilusio faltsuak egitea, soldatak ez baitira horrenbestekoak izango betiko

Abreu

Aitor Etxebarria

Munduko futbol txapelketa hasi da eta futbola

maite dugun estaturik gabeko herrietako biztanle asko umezurtz egoten gara halakoetan. Gure selekzioa halako txapelketa batean ikusteko eguna iritsiko da, baina, bitartean, txapelketok nahiko modu aseptikoan jarraitu izan ditut orain artean. Ez dut sekula modu sutsu batean selekzio hau edo beste babestu. Ze bi selekzioek ez zuten irabazle izan behar soilik izan dut argi, baina hori ez da mundiala bizitzeko modurik aproposena.

Aurreko astean Uruguako Parlamentuan Euskal Herriko gatazka politikaren konponbidearen alde antolaturiko konferentzia jarraitu nuen. Harriturik eta hunkiturik ikusi nituen horren urrun dagoen herri hartako jendartearen gehiengo ordezkatzen duten alderdi, gobernu kide, eragile sozial eta pertsonaia publikoak gure herriaren alde, konponbidearen alde. 1994ko Filtroko operazioko irudiak etorri zitzaizkidan burura.

Sinatzaileen zerrenda banan-banan irakurri nuen, izen asko, ezezagunak gehienak niretzat, diputatuak, ministroak, lehendakari ohiak, sindikatuak, irakasleak, denetarik. Eta guztien artean hara non aurkitzen dudana Sebastian *El Loco* Abreurena, eta burura etorri zitzaidan lehen irudia 2010eko munduko futbol txapelketako final laurdenetako Uruguai-Ghana partiduan (nire ustez mundial hartako partidurik ederrena), penaltietan, *El Loco* berak Ghanari sarturiko penaltia. Panenka erara sarturiko gola. Eta pentsatu nuen: «Aupa hi, oraingoan bakearen etsaiei sartu diezun gola kristorena izan da». Eta, hau guztia, aurten munduko txapelketan ez naizela iraganean bezala umezurtz izango esateko: Uruguai zale bat irabazi du. Eta seguru nago nirekin batera asko direla Euskal herrian ni bezala egingo dutenak. •